



SuBerriren estreineko kontzertua.- San Pedro parrokia hautatu zuten SuBerri akordeoi orkestrako musikariek estreinako kontzertua emateko. Jende ugari bildu zen larunbat arratsaldean elizan, duela urtebete baino gutxiago sortutako orkestrari ongi-etorria emateko prest. Argi geratu zen ilusio askorekin ekin diotela ibilbide berriari eta hasi orduko, lanaren fruituak erakutsi zituzten. "Karmen Collage" izeneko obra original eta bitxi batekin hasi zuten kontzertua, akordeoi-joleek estilo nahasketa polita eskaini zuten, sentsazio eta erritmo batuketa berezia, jendearengan harridura sortu zuena. Bach-en estilo barrokoa ere dastatu ahal izan zuten lasarte-oriatarek, alai eta markatua edota Chuecaren "El Bateo" zarzuela, baita Schubert, Piazzolla, Weber, Beethoven eta beste hainbat sortzaileen obrak ere. SuBerriko musikariek txalo zaparrada artean egiten zuten obra batetik besterako jauzia eta Elias Goikouria zuzendariak uneoro eskertu nahi izan zuen publikoaren berotasuna. Zenbait obratan Pilar Catalina eta Amaia Lizarragak euren soprano ahots itzela erakutsi zuten, San Pedro parrokiaren musikalitatea bikain probestuz.

3 SANTA AGEDA

Oles egiteko ohitura zaharrari eutsiko diote herritarrek

Santa Ageda bezpera egunean makilak hartu eta kalera aterako dira herriko hainbat talde, ohitura zaharrari jarraituz, Santa Agedari kantatuz, lurra makilaz kolpatzen duten bitartean. Xumela, Earra! Bertso eskola, Erketz, Zabaleta auzo-koak eta Amalur eta ikastetxeak arituko dira kantuan.

4 INAUTERIAK

Badatoz Inauteri koloretsu eta alaiak Lasarte-Oriara!

Asteburu honetan ospatuko dira Inauteriak herrian eta izango da festarako parada. Udalak ostiralean aurkeztu zuen egitaraua eta larunbatean desfile jendetsua egingo da. Igandean Ttakunek Euskal Inauteri festa koloretsua egin nahi du eta herritarrak txantxo jantztera animatu ditu.



5 ERAKUSKETA

Osasun eta elikadura eskubideen alde

Prosalus Gobernu Kanpoko Erakundeak bi erakusketak antolatuko ditu kultur-etxean eta Emakumearen Zentro Zibikoan. "Elikagaia izateko giza eskubidea", hilaren 28ra bitartean izango da ikusgai Manuel Lekuonan, eta "Osasuna eskubidea dela" aldiz, Zentro Zibikoan otsailaren 15era bitarte.


ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua
Solomoa baratxuritan

Tripakiak- Saltxitxak
Etxeko txorizoa

Basurde burua
Baserri pateia

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451



BERTAKO FABRIKAZIOA

Txistorra

Adituak dio



Idoia Garzes

Gora trapu zahar festa!

Trapu zahar festak. Hala esaten zieten garai batean inauteriei, eta niri ere hala deitzea gustatzen zait. Maite ditut neguko jaiak, bereziak dira. Oraindik lurrarekin lotzen gaituen soka direla pentsatzea gustatzen zaidalako; naturari eta aspaldiko arbasoei batzen gaituen zilbor-hestea direla jakitea gustatuko litzaidakeelako.

Ez gara ez Ituren, ez Zubieta, ezta Lantz ere. Sinbolismoz beteriko inauteriak dituzten herriak dira haiek. Ez ditugu, joareak bizkarraren hartuta, ez eta isipua astinduz ere, espiritu txarrak uxatuko eta lurra esnatuko. Gure herrian ez da Miel Otxinik, ez Ziripot baldarrik, ez hura lurrera botako duen zaldikorik, ez eta azken hori ferratuko duenik ere. Akaso ez dugu Tolosa-koak bezalako kale-inauteri ospetsurik...

Baina badituzte adiskideak, herria etorritakoan, "hemen beti bada zer edo zer" harriritua esaten dutenak. Lasarteoriatarrok jai egitea eta kalea geureganatzea gustuko ditugula esaten dutenak. Eta asteburu honetan hala izango da. Larunbatean eta igandean da zita: moztarria jantzeko garaia, jaiak murgiltzeko eta parte hartzeko parada ezin hobea.

Zuberoako maskaradak, Lapurdiko kaskarotak, Altsasuko momotxorroak, Zalduondoko Markitos, Luzaideko bolantak... eta Lasarte-Oriako nahi duguna. Festarako eta jostatzeko egunak dira inauteriak. Lotsak astintzeko, armairua zabaldua jantziko ditugun trapu zaharrek astindu behar diren gisan. Parte hartu eta gozatu! Nork daki, akaso inoiz inauteri ospetsuak dituztenen zerrenda horietan agertuko gara gu ere, aterako da Lasarte-Oria ere.

Gaur eskean ibiltzeko eguna denez, zuei oles egin eta gero, santari eskatuko diot sekulako inauteri partaidetsuenak izan ditzagula!

Gure Inauteriak

Inauteriak, inauteak, ihoteak, aratusteak... euskaraz badira hitz asko datorren asteburuan gurean ospatuko dugun festa izendatzeko. Oinarrian moztarria dira festa hauetan protagonistak, moztarria eta giro alaiak, beti musikaz lagunduta noski.

Aurten herrian hautatutako gaia Munduko Kulturak dira eta dagoeneko konpartsa eta koadrila gehienek prest dute larunbatean aterako duten jantzia. Aurtengoan bereziki euskal inauterien jaia indartu nahi du Ttakunek igandean. Lehenengo urtea da elkarteak beregain hartzen duela hauen antolaketa eta jaia herritarrei zabalitzeko asmoz, igande goizterako hamaiketako eta festa antolatu ditu. Jendearen erantzuna ona bada, nork daki, agian euskal inauterietan

osaten diren zerrenda horietan ere Idoia Garzesek dion moduan, gure herriari lekutxo bat egingo zaio.

Udalak bere aldetik, orokorrean Inauteriak herrian indartu nahi dituela esan du, izan ere, jende askok parte hartu arren, oraindik asko dira moztarrietara animatzen ez direnak edota festa hau herrian ospatzen ez dutenak. Beraz, parte hartze handiagoa lortzea da denentzat erronka.

Inauterietan badute bere xarma, moztarria eta egun batez beste pertsona edota pertsonaia baten larritan jartzen gara, horrek lizentzia batzuk ere ematen dizkigula ezin ukatu, ezberdin jokatzeko dugu, egun batez lotsak etxean utzi eta bestelako jarrerak, animoak nabaritzen dira... Jantzi amonaren soineko zahar bat eta irten kalera festaz gozatzera!

Hitz eta pitz

Mozorrotuko al zara inauterietan?



Oier Artola

Normalean ez naiz moztarrietan, kalean ibili eta festa ikustea gustatzen zait baina ez daukat moztarrietan ohiturarik. Besteen moztarria ikustera eta ondo pasatzera bai, ateratzeko ohitura badut, baina moztarria gabe. Gaztetxotan moztarrietan nintzen, baina adinean aurrera egin eta heldu ahala utzi egin dut. Donostiara joaten gara Inauterietan.



Israel eta Carla Gimenez

Afrikar tribuaren moztarria jantziko dugu ludotekako konpartsa kalejira parte hartzeko. Hurrekin batera aterako gara. Lehen gure kasa ateratzen ginen, etxe-koak, eta orain haurrek. Festa hau gustatzen zaigu, batez ere umeengatik, eurek oso ondo pasatzen dute eta. Normalean herrian ibiltzen gara, ez dugu kanpora joateko ohiturarik baina iaz Donostiara joan ginen.



Chisca Ramos

Behin edo behin moztarria naiz. Izan ere, asko gustatzen zaidan festa da, batez ere, moztarrietan haurrak ikusita asko gozatzen dut. Aurtengo moztarria pentsatzen ari naiz, momentuz ez dut ezer erabaki. Baina ez naiz konplikaturik. Peluka bat eta betaurrekoak jantzi eta nahikoa da moztarrietan. Girotxoa sortu beharra dago ondo pasatzeko. Gu herrian ibiltzen gara.



Gaizka Ormazabal

Inauterietan moztarria behar dago, urtero moztarrietan. Gustatzen zait festa. Egun horretan nahi duzuna jantzita atera zaitezke. Ez pentsa asko konplikatzeko garenik, urtearen arabera, normalean azkeneko urtean dugu, bi aste lehenago hasten gara pentsatzen. Ez gara konpartsa kalejira aterako, baina igandean, euskal inauterietan, seguraski bai, aurreko urteetan bezala.

Iruditan

Santa Eskean



Tomas Hernandezen bildumatik aterako irudian lasarteoriatar koadrila eskean. Denak gizonezko gazteak.

Santa Ageda doinuek iragartzen dute Inauteriak ate joka ditugula. Ohi bezala herrian zehar koplak abesten arituko dira hainbat talde euren makilaz lagunduta. Ohitura honen jatorria ez dago oso garbi zein den, baina tradizionalki baserri eremuan egin eta urteetan mantendu izan da. Baserriz baserri eskean ateratzen ziren gizon gazteak, kintoak izan ohi ziren, soldaduskara joan aurretik, ondoren bizilagunek emandako janariarekin afari ederra egiteko. Abesten diren koplak dagokionez, herrietan geratzen ohi dira bertakoak diren kantak. Izar ere Santa Agedaren omenezkoak gain, beste hainbat gai jorratzen dituzte.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,
Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
bntxam@bntxam.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

SANTA AGEDA BEZPERA

Santa Agedari kantuan, makil kolpez lurra esnatzeko

Makilak eskuan eta ahotsa zainduta, oles egiteko ohitura zaharrari eutsiko diote gaur hainbat lasarteoriatarrek

Santa Ageda bezpera egunean makilak hartu eta kalera aterako dira herriko hainbat talde, ohitura zaharrari jarraituz, Santa Agedari kantatzera, lurra makilaz kolpatzen duten bitartean. Zenbait historiariren teoriaren arabera, makilarekin konpasa eramanez lurra jotzea loalditik esnatzeko deia da, udaberriko loraldiaren etorrera irudikatzen duen ekintza.



Aurreko urtean hainbat herritar aritu ziren Santa Agedari oles egiten.

Santa Ageda eta Inauteriak, aintzina aintzinatek datozen negu amaierako festak direla uste da, Euskal Herrian kristautasuna zabaldu aurrekoak. Euskal Herriko hainbat tokitan inauterietan baserriz baserri ateratzen dira lagun koadrilak "puska eskean", eta Santa Ageda bezperan ere eskean ateratzeko ohitura dago, bereizgarri batekin, makilekin lurra kolpatuz eramaten dela kantuen erritmoa, naturari lozorrotik ateratzeko eskatuz bezala.

Herriko egitaraua

Lasarte Orian Xumela abesbatza eta Earra! Bertso eskola, Erketz dantza taldea, Zabaleta auzokoak eta Amalur Trikititia eskolakoak aterako dira kantuan, Santa Agedari oles egitera, Euskal Herriko eguna ospatuz eta bide batez, ohitura zaharrak gordetzeko

asmoz.

Eztarriz sano dabilzala erakusten saiatuko dira guztiak.

Gainera, herriko eskoletan ere kantatuko dute haurrek. Landaberri-Garaikoetxean eta Sasoetan eguerdian elkartuko dira ikasle guztiak eskolan bertan kantatzeko.

Zabaleta auzoko koadrilak 18:00etan jarri du hitzordua Antonio Blas plazan, eta urtero bezala lehenengo auzoan eta ondoren inguruko baserrietan kantatuko dute, azkenik Sollanen, Otegi sagardotegian bukatu eta bertan afaltzeko.

Ordu berean, arratsaldeko 18:00etan aterako dira Jalgitik Xumela abesbatzako eta Earra! Bertso eskolako kideak

nahi duten herritar guztiak batera. Ttakunek deia luzatu du nahi duten guztiak kantatzera animatu daitezten. Ohi bezala, Santa Ageda kantauk eta bertsoari koplak tartekatuko dira, erdiguneko kale eta tabernetan.

Erketzeko dantzariak 18:00etan elkartuko dira beraien lekalean eta 18:30 aldera aterako dira, erdigunetik hasi eta Kaxkarro aldean amaitzeko. Buenavistan afalduko dute ondoren.

Amalur eskolako trikitilari eta panderojoleak ohiko itzulia emango dute. 18:00etan eskolan elkartu eta laurdenean abiatuko dira, kultur etxetik itzulia egin, Sagardotegi eta Okendotik pasa eta Udalteixe parean amaitzeko.

UDAL MUSIKA ESKOLA

Inauterietako kontzertu bufoa

Inauteriak direla eta, datorren otsailak 6-ean 18:15etan Manuel Lekuona Kultur Etxeko Areto Nagusian Lasarte Oriako Udal Musikako ikasle eta irakasleek inauterietako kontzertu bufoa prestatu dute. Kontzertua, 18:15etan hasiko da eskolako txikienekin. Ondoren, pianoa, biolina, gitara klasikoa, musika tresna desberdinez osaturiko talde desberdinak... entzun eta ikusi ahal izango dira. Kontzertuari bukaera emateko, Zero Sete Akordeo Orkestrak Musika Eskolako trikitilariekin batera bi pieza interpretatuko ditu.

UDALA

Tokiko ekonomia lantzen

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalak sektoreak eta Udalaren artean komunikazio bide eraginkorra irekitzeko parte-hartze prozesu bat abiatu zuen Udalak, horren beharrak identifikatu eta dinamizatzen laguntzeko asmoz.

Horretarako, aste honetan prozesu horren bigarren bilerara erronda egin da aipatutako sektoreekin. Aurreko bileretan jasotako ekarpenei Udalak prestatutako erantzunak jakinarazi zaizkie parte-hartzaileei, hauek baloratu eta guztien artean beraientzako garrantzitsuenak direnak lehenesteko. Prozesuan bildutako informazioa Udalak txosten batean islatzeko asmoa du, aurrera begirako eginbeharrak zehazteko. Informazioa gehiago d.avila@lasarte-oria.org e-postara idatziz edota 943376183 telefonora deituta.



PARTE-HARTZEA

Irudi korporatiboaren erabakia

Udalaren logo berriaren aukeraketa prozesuan parte hartu dezakete herritarrek gaurtik aurrera, gustuko den erakusketan eongo dira ikusgai aurkeztu diren 69 lanak otsailaren 4tik 14ra bitartean. Helburua herritar guztiak iritzia emateko aukera izatea da eta horretarako bi taldetan banatu dute parte-hartzea. Batetik, maila pertsonalean eman daiteke bozka webgune berrian (www.parte-hartzea.lasarte-oria.org) edota erakusketan bertan esku orri bat betez, logotipoaren ezizenarekin parte-hartze postontzian sartuz. Bestetik, herriko elkartearen epaimahai bat eongo da, eta hauek ere bozka emango dute euren aldetik. Bien artean erabakiaren %50a osatzen dute, beste %50 Udalak erabakiko du.

BERTSOLARITZA

"Ez gara Palestinaz ari" emanaldia

Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsoari "Ez gara Palestinaz ari" emanaldia eskaini zuten asteburuan Andoaingo Basteron, Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikariekin batera bi urtez lanean aritu ostean. Bi bertsoari bere bizitzaren hausnarketa egin, eta omenaldi dotore bat egiteko parada hartu zuten lagun artean goxoan, saioak, kantuz eta bertso eskainiak, bihotzetik, barrenekik. Saioak bizi nahi dugun bizitza, benetan hura bizitzen ari ote garenen galdera, eta bizi ez izateko askatasun ezaren mugak izan zituen ardatz. Gure barruko Niaren eta kanpokoaren arteko zubiaren joan etorriak aipatu zituzten, bertsoan eta "off-eko ahotsaz", puntu umoretsuz lortuak. Gure bizitzako gidoia idazteko eta bizitzeko garaia iritsi dela ohartarazi zuten eta haurtzarotik bizi ditugun beldur sakonak ere ekarri zituzten gogora.



Fabordon hirukotea.- Carlos Rosat, Tomás Ruti eta Imanol Elizasuk kontzertu ederra eskaini zuten Atoibakarreko zaharren egoitzan igande goizean. Euskadiko Orkestra Sinfonikoko musikariak dira Rosat flauta-jolea eta Ruti fagot-jolea, Elizasu piano-joleak berriz musika munduan ibilbide luzea du, besteak beste, Oreretako koruaren zuzendaria da gaur egun. Igandeko kontzertua beraien ekimenez antolatuta zuten, Danok Kidek lagunduta eta Udalaren kolaborazioarekin, honek pianoa utzi baitzuten musikari kontzertua eskaini ahal izateko. Bi obra interpretatu zituzten herriko adindu eta senideen aurrean, Donizetti konposatzailearen "Larghetto e Allegro en Do M" eta Beethovenen "Trio en Sol M", goiz-pasa ederra egin zuten denek.



Inauteri koloretuak

▮ Asteburu osoan zehar izango da festarako aukera Okendo plaza inguruan ▮ Munduko kultura gaiarekin eta Euskal Inauteriekin herritarrak kaleak hartzeko deia luzatu dute

Asteburuan izango dira Inauteriak eta herrian izango da festarako parada. Udalak ostiralean aurkeztu zuen astebururako egitaraua eta berrikuntza gisa larunbateko desfilean bost konpartsa berri parte hartuko dute. Igandean, Txakunek Euskal Inauteri festa jendetsua egin nahi du eta horretarako esku orria banatu du txantxoz jantzi eta herritarrak gizean ere kalera irten daitezzen.

Maidar AZURMENDI

Taxio Arrizabalagak azaldu duenez, aurten ere iaz egin bezala parte hartze prozesu bat burutu da udalaren egitaraua osatzeko "inauteriak herriko konpartsa ezberdinekin elkarlanean diseinatu eta aurrera eramanez". Iazkoa esperientzia positiboa izan zela baloratuta aurten bide bera jarraitu da.

Gaia hautatzeko lehen aldiz galdeketa martxan jarri zen eta herritarren euren proposamena egin ahal izan dituzte. "Guztira 132 proposamen jaso ziren, orotarikoak, eta konpartsa guztien artean Munduko Kulturak hautatu zen".

Guztira hiru bilera egin ditu udalak konpartsekin eta bakoitzean gai ezberdin bat jorratu du, gaiak eta diru laguntza lehenengoan, egitarauaren inguruko proposamen bilketa bigarrenaren eta hirugarrenean erabakiak hartu ziren, "aurreko bileretan aterako guztiari forma eman zitzaion". Oraindik laugarren bilera bat falta dela aipatu

zuen Arrizabalagak eta hori hain zuzen, balorazio bilera izango da.

Konpartsa berriak

Aurtengoan gainera larunbateko desfilean parte hartzea handiagoa izango dela aurreratu dute, izan ere bost konpartsa berri aterako dira eta aurrerantzean kopurua handitzen jarraitzea da udalaren nahia.

Kale Nagusia itxita egongo dela iragarri zuten "herriguneari osotasuna emateko".

Azkenik herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte mozorroto eta kalera ateratzeko eta etxeko balkoiak koloretan oihalez apaintzeko.

Egitaraua

Larunbatean, 12:00etatik txaranga ibiliko da herrian zehar eta Okendon festari hasiera emango zaio. Ohi bezala konpartsa ezberdinek prestatutako dantza eta esketxak ikusteko aukera izango da hemen. 12:30ean pintxo potea egongo da Ilargi, Bueñtxea, Arkupe, Intxausti, Artizar tabernatan.



Xabier Goitia, Rosa Illarramendi eta Taxio Arrizabalaga udaletxe berriko balkoian ostiraleko aurkezpenean.

Karpan 14:30etatik aurrera bazkari herrikoia egingo da norberak eramandako bazkariarekin.

Arratsaldean, Zabaletako lagunek 16:30ean txokolatea banatuko dute Okendon eta ondoren 17:00ak aldera desfilea abiatuko da Okendotik iazko ibilbidea eginez. Gogoratu nahi da desfilea irekia dela eta konpartsa bat osatzea ez dela beharrezkoa honetan parte hartzeko. Lagun koadriak zein norbanakoak joan daitezke desfilean.

19:00etatik aurrera Dinbi Bandako batukada arituko da herriko kaleak giroten eta Gazte Klubekoan bingoa egongo da. 20:00etan plazan erromeria egingo da Amalurrekoekin. Gauean karpan disko festa egingo da.



Euskal Inauteriak jai giroan eta ahalik eta jendetsuen nahi dira ospatu.

Igandean, Euskal Inauteriak hartuko ditu kaleak. Okendo plazan goizean mokadu bat egiteko aukera izango da eta jaia. 12:00etatik aurrera, txorizo pintxoak, salda eta sagardo dastaketa egin ahal izango da Okendon

eta Euskal Inauterietako doinu herrikoiekin dantza. Arratsaldean desfilea irekia 17:30ean abiatuko da eta 18:30ean Okendon dantza eta hartza erreko da. Herritarrak kalera atera eta festaz gozatzera animatzen dituzte.

Txantxo jantzia nola prestatu

Ttakunek lehenengo urtez antolatuko du Euskal Inauteria eta orain arteko egitaraua aldatu eta herritarren parte hartzea sustatu nahi du. Igandeko festan txantxoz jantzita plazaratzeko aitzakiarik ez dagoela azpimarratzen dute antolakuntzatik izan ere, erraz, etxean toda daitezkeen edo zerkin osatu daitezkeen euskal mozorro dotorea.

Euskal Inauterietan "Txantxo jantzia" erraz osatzeko irudi eta argibide batzuk ere prestatu eta banatu dira herriko elkarte, eskolatan etab. hemen dituzte garrantzitsuenak.

Mozorro koloretuak Miel Otxinen antzekoak edo zakuz egina Ziripoten antzekoak, edozerk balio du inauterietan,

animatu eta gozatu!

Soinean.- Brusa (sanpedrotakoa), amonaren sukaldetako bata, aitaren hippy garaiak alandora, arpillera zakua,....

Azpikogona eta galtzak.- Mahoizkoak, loreduak, pijama zaharra, koloretako edozein galtza...

Oinetan.- Artilezko galterdiak, abarkak edo botak, ... nahi dena.

Buruan.- Lastozko txanokak edo kukurutxoa, dena zinta politez josia. Txapela beltza edo koloretakoa, bestelako txapel bat.

Ez ahaztu aurpegia ezkutetzea; horretarako ipini oihal fin bat kapelatik zintzilikatuta edo maskara gisa, arnasa hartzen utziko dizuna, nahi izanez gero egin ikusteko eta

arnasa hartzeko zuloak.

Eskuetan.- Eskuetan erratza, makila, zartagina, ferratzeko mailua, sardea, txintxarriak, kanpaitxoak,...

Gogoratu helburua ondo pasatzea dela, eta horretarako ez dela jesukristoren mozorroa behar. Armairua arakatu (zurea, familiarena edota lagunena), lotsak astindu eta aurrera!



Herrialde pobreen arazoak agerian

Osasun eta elikadura eskubideen aldeko bi erakusketa zabaldu ditu ostiralean Prosalus GKEK Manuel Lekuonan eta Emakumeen Zentro Zibikoan. Bi hitzaldi ere antolatu dituzte 7 eta 13an

Elikadura eta osasuna ziurtatzeari buruzko hitzaldi eta erakusketa antolatu ditu Prosalus Gobernu Kanpoko Erakundeak Manuel Lekuona kultur etxean eta Emakumeen Zentro Zibikoan. Ostiralean zabaldu eta hilabete egongo da ikusgai, hilaren 28ra bitartean, Manuel Lekuonan, "Elikagaia izateko giza eskubidea" izenburua duen erakusketa eta Zentro Zibikoan, aldiz, ostiralean hasi eta otsailaren 15era bitartean "Osasuna eskubidea dela" erakusketa.

Jon ALTUNA IZA

Prosalus Gobernu Kanpoko Erakundeak 1995 urteaz geroztik Afrika eta Amerikako hainbat herri-tan osasuna sustatzeko lanean ari da. Bere zeregin nagusia Hegoaldeko pobretutako herrialdeetako osasuna zain-tzea da.

Gizarteko hainbat elkar-te-rekin elkarlanean, komunitate baten osasuna baldintzatzen duten faktoreen gainean egi-ten du lan eta, batez ere osasunaren, elikaduraren eta uraren inguruko giza eskubi-deak indartzea du helburu.

Erakundeak martxan dituen proiektuak ezagutzeko aukera ere eskainiko dute antolatzaileek erakusketen osagarri. Otsailaren 7an eta 13an hitzaldiak antolatu dira Emakumeen Zentro Zibikoan. Ostegunean 18:00etan izango da eta otsailaren 13an, asteaz-kenean berriz, 17:00etan.

Osasuna giza eskubide

Manuel Lekuonan jarriko diren bi argibide-taula handi-tan munduko hainbat lurral-de-tan daukaten gosearen arazoa eta giza eskubideen alorretik horri aurre egiteko aukera eta alternatibak azal-tzen dira.

Antolatzaileek 16 urtetik gora koantzat prestatu dute

erakusketa, datu gordinak ematen dira eta.

Besteak beste gosearen mapak jakinarazten dira, 2008ko urte amaieran 963 milioi pertsona goseak ziren munduan, bazterketa, gatazka armatu, ur eta beste hainbat baliabideen eskasia, nazioar-teko merkatu-arau desegoki eta politika publikoen ahulta-sunaren ondorioz. Gehienak, ehuneko 75, nekazal inguru-eto-ko nekazari txiki, artzain, arrantzale, herri-indigena eta lurrik gabekoak.

2006tik elikagaien salne-urria ehuneko 80 garestitzea-ren ondorioz arazoa areagotu egin da eta gutxienez beste ehun milioi pertsona bizi dira goseak.

Konpainia eta lurren jabe handiek, lurrik onenak bio-erregaiak ekoizteko erabiltzeak sortzen dituen arazoak eta aldaketa klimatikoa ere jorratzen dira erakusketan.

Konponbideak

Bigarren argibide taulan kon-ponbideak jorratzen dira.

Batetik elikadura giza eskubidea dela aldarrikatzen da, eta, beraz, munduko esta-tuen bete beharrak direla, eskubidea errespetatu, herritar-rak babestu, hauei behar dutena eskura izatea erraztu eta elikadura egokia ez dute-nei laguntzea.



Emakumeen Zentro Zibikoan erakusketa hilaren 15era arte egongo da zabalik.

Hau da, herritarrek elika-tzea oztopatuko duten neurri-ek ezingo dute hartu agintarie-k, eta oztopoak jartzen dituzten enpresa edo pertsonengandik babestu egingo dituzte; gainera erraztu egingo dute pertsonen bizitza ziurtatzen duten baliabi-deak herritarren eskura jartzea, jokabide horiek sendotu eta azkenik, herritar edo talde batek elikadura egokirik ez dauenean eta hori bere esku ez dagoenean, Estatuak bermatu beharko dute.

Elikadura eskubidearen osagai nagusiak ere aipatzen dira, besteak beste, elikadura nahikoa, toki eta garairako egokia, gaurko eta geroko belaunaldientzat iraunkorra, osasunarentzat kaltegarri ez dena, kulturalki onargarria eta edonorentzat eskuragarria izan behar du.

Elikadura burujabetza

Azkenik elikatzeako subirano-tasuna aldarrikatzen da erakusketan. Hau da, elikagaiak ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko moduak era-bakitzeko eskubidea duela herri bakoitzak, ekoizpen txiki eta ertainetan oinarrituz, eta nekazari, arrantzale eta indigenen ekoizpen moduen aniztasuna zein bertako kul-tur adierazpenak errespetatuz.

Kontutan izan beharko da nekazal ingurune horietako ekoizpen, salmenta eta bizi-tzaren kudeaketan emaku-meek jokatzeko duten rol garrantzitsua.

Erakusketan ageri denez, oinarritzekoak dira halaber, batetik etxeko ekoizpen eta bertako merkatuei lehentasuna ematea, ekoizpen sistema ekologikoetan oinarrituz, bestalde, bidezko salneurri egokiak ziurtatzea eta, azke-nik, hazien babesa, besteak beste.

Nazioarteko konpromisoak

Nazioarte mailan egin diren ekimenak ere aipatzen dira erakusketan: 1996an burutu zen Elikadurari buruzko Munduko Goi Bileran 2015erako gosea sufritzen duten pertsonen kopurua erdira jaisteko konpromisoa hartu zuten 180 estatuetako ordezkariak.

Bestalde, 2000n "Milurte-koaren Adierazpena" sinatu zuten 189 herrialde-tako ordezkariak pobrezia gutxitu, osasuna hobetu eta bakea, giza eskubideak eta ingurugi-

roaren jasangarritasuna bul-tzatze-ko helburuarekin. Zor-tzi helburu konkretu aipatzen ziren bertan eta lehenengoan 2015erako gosea duten per-tsonen kopurua erdira jaiste-ko konpromisoa berresten zuten.

Osasuna Zentro Zibikoan

Emakumeen Zentro Zibikoan 15 egunotan zabalik den erakusketan zein hilaren 7 eta 13an emango diren bi hitzal-dietan herrialde pobretako osasun arazoa jorratzen da.

Hemen ere oinarritzeko giza eskubidea dela aldarrikatzen da hainbat argibide taulen bidez.

Marraskien bidez eta modu erakargarrian munduko hainbat tokitan barrena bidaia proposatzen da.

Gipuzkoan zehar eraku-sketa-ek egingo duen ibilbidean lehen geltokia da Emakumeen Zentro Zibikoan.

Erakusketan azaltzen dute-nez, osasuna behar beharrez-koa da beste giza eskubideak izateko eta horien menpe ere badago.

Faktore askok dute eragina pertsonarean osasunean, batez ere, jario, hazi eta bizitzeko ditugun baldintzak oso garrantzitsuak dira. Eta hori beste alderdi askoren menpe dago, osasunean eragina dute politika, gizarte, natura edota ekonomia alorretako baldin-tzek.

Erakusketan arlo horietan zer egin daitekeen ikusi daite-ke 3. munduko herrialdeetan osasuna oro har hobetzeko.



"Elikagaia izateko giza eskubidea" erakusketa Manuel Lekuona Kultur etxean hilaren 28ra arte.

ERRUGBIA.-

Ostadar-Beltzak taldeak galdu egin du etxean Riojaren aurka

Sport Taver Rioja Rugby taldea gehiago izan zen eta 15-28 gailendu zuen Beltzak Michelinen

Haize zakarra zebilen larunbata eguerdian Michelingo berdegunean eta nahikoa lan izan zuten jokalariek errugbiko baloi bihurria gobernatzan. ikuskizun polita eskaini zuten harmailetan bildu ziren zaleen gozamenerako, garaipenak Logroño aldera ihes egin bazuen ere. Garaipen eta berdinketa bat lortuta, galtzea tokatu zaie oraingoan.

Ostadar-Beltzak kade-teen taldea erdi-lo sartu zen partiduan eta lehen zatiaren hasierako minutuetan arazo ugari izan zuten etxeok zelai erdia igarotzeko, Riojak, halere, ez zuen gehiegi aprobetxatu egoera hori.

Lehen zatiaren bigarren erdian Ostadar pixkanaka partiduan sartzen hasi zen eta 17. Minutuan Andoni Amonarri zek uztartzea egin zuen, eraso luze eta landu baten ostean.

Etxeokoen lehen zati ona

5-0 aurreratu zen Beltzak beraz, baina jokoa trabatua zihoan, jokaldi luze eta "mele" ugarirekin. Halere, etxeok defentsan sendo ageri ziren eta ez zen arriskurik sumatzen Beltzaren zutoin inguruan.

Gainera, lehen zatiaren

hodarrean, 34. minutuan, Ibai Mitxelenak uztartzea egin zuen eta atsedendira 10-0eko emaitza joan ziren, Beltzak markagailuan nabarmen aurrea hartuta.

35. minutua iristearrekin batera, epaileak atsedendia egiteko agindu zuen. Juntxo Prieto entrenatzaileak jokalariei argibideak ematen pasa zituen deskantsuko bost minutuak, meleetan egindako akatsak zuzenduz bereziki.

Bigarren zatian, behera

Bost minutu eskaseko atsedendia ostean, ur potoak hustu eta norgehiagokari ekin zitoten berriro mutilek.

Bigarren zatia hasi bezain pronto, 41. minutuan, uztartzea egin zuen Riojak, etxeok defentsako huts nabarmen bat tarteko, markagailuan gerturatu egin ziren beraz kanpo-koak (10-5).



Beltzak-Ostadar (ezkerrean) eta Logroño Sport Taver Rioja Rugby taldea (eskuinean) partiduko mele batean elkarri bultzaka.

Horrek ez zituen Beltzak-eko mutilak kikildu, eta aurrera jo zuten ausart. Eraso luze eta landu batean ordea, baloia galdu eta Riojak kontraerasoan partidua berdintzea lortu zuen uztartze bizkor batekin, 10-10 jarri ziren 46. minuturako.

Moraliki kolpe gogorra jaso zuten herritarrek eta kosta egin zitzaizen jasotako kaskateotik errekueratzea. Bost minutu eskasetan beste bi uztartze jaso baitzituen Beltzak-Ostadarrek 10-20.

Erasoan sendo agertzen ari zen Rioja, aukera ugari eta argiak sortuz. Etxeok berriz, galdu xamar zebiltzan, defentsan galtzak bete lan zituztela eta eginahalak eginez uztartze bat gehiago ez jasotzeko.

Partidua erdi-galduta zeukatela zirudienean ordea, Unai Urruzolak uztartzea egin zuen 10 minuturen faltan markagailua estutuz, 15-20. Adierazgarria izan zen Prieto-oren oihua: "Oraindik partidua dago mutilak! Partidua dago! Eutsi goiari!"

Alferrik izan ziren deiadarrak, Riojak norgehiagoka erabakita utzi zuen partidua hondarrean uztartzea egin eta transformazio bat gauzatu ostean. Azken emaitza: 15-28.

Kiroltasuna lagun

Partiduko irudirik politena epaileak partidua amaitutzat jotzen ikusi genuen, Riojako irabazleek pasiloa egin zioten talde galtzaileari. Zirraragarria izan zen jokalariek elkar animatzen ikustea, su-etenik gabe borrokan aritu ostean.

FUTBOLA.-

Ostadar 5 - Texas I, herriko derbian

Kadete mailan kopa jokatzen ari dira herriko bi taldeak. Lehen itzuliko hirugarren jardunaldia jokatzen zuten larunbatean Michelingo berdegunean eta kolpe gogorra eman zuen Ostadarrek, hiru puntuak bereganatu eta sailkapeneko goiko postuetan sartuz.

Hala ere, Texas Lasartearra aurreratu zen markagailuan lehen zatiaren erdi aldean, zuri-urdinek kórner bat ateratu eta aldaratzean adi egon zen Xiker Martin, baloia sareetara bidaltzeko.

Partidua kontrola Ostadarrena zen, baloiaren jabetza euren zen argi eta garbi, eta atsedendira iristeko minutu gutxi batzuk falta zirenean, penaltz sartu zuen gola Fernando Martin Ostadarreko jokalariek.

Bigarren zatian kolore beltz eta urdina izan zuen erabat, Texaseko mutilei partidua luze egin zitzaizen eta



Aukera ugari sortu zituen Ostadarrek Texasen area inguruan, batez ere bigarren zatian.

minutuak aurrera joan ahala, fisikoki Ostadar gehiago zela ikusi zen.

Bigarren zatian lau gol egin zituen Ostadarrek, Jokin Otamendi, Unai Iribar, Julen Campo eta Beni Benitez izan ziren goleatzaileak.

Texasek fisikoki bakarrik ez, moraliki ere belarondoko

handi samarra jaso zuen ario historikoak bost gol sartuta.

Pozik ageri zen Ostadarreko entrenatzaile Arkaitz Sanchez partidua amaitzean: "Oso gustura gaude mutilek egin duten lanarekin, nabari da ilusioarekin ari direla jokatzen eta horrela jarraitzea espero dugu".

ATLETISMOA.-



Ostadarreko hainbat atleta Idiazabalgo proba hasi baino lehen.

JOSEBA IPARRAGIRRE

Lasarteoriatarrak ederki Idiazabalgo herrikoetan

Idiazabalgo XXXIII. Herriko-Sean 18 herritarrek parte hartu, urtarrilaren 27an. Horien artean, hiruk sailkapeneko bost lehenengoan artean bukatu zuten proba. Raul Gomez hirugarren izan zen (34:29), Endika Gartzia laugarren (34:36) eta Jose Luis Delgado bosgarren.

Gainontzeko herritarren denborak honako hauek izan ziren: David Sanz, 38:53;

Luis Enrique Gallego, 40:20; Francisco Javier Perez, 41:10; Ramon Altuna, 41:29; Emilio Hernandez, 41:50; Xabier Carcedo 43:54; Iraitz Pika-bea, 44:12; Javier Olazagoitia, 44:47; Peio Fadrique, 46:04; Julen Ollokiegi, 46:05; Jose Ignacio Bueno, 46:18; Joseba Iparragirre, 49:02; Miel Ormazabal, 49:26; Ignacio Zapirain, 50:27 eta Egoitz Salsamendi, 50:53.

Agenda

Astelehena 4, Lasarte-Oria



Santa Ageda bezpera degu

Santa Ageda bezperako koplak entzungo dira gaur herrian eta inguruetako auzo eta baserrietan. Goizean, ikastetxeetako haurrak izango dira kantuan herriko kaleetatik zehar. 18:00etan, Zabaleta auzoko lagunak Antonio Blas plazan hasiko dira kantuan. Auzoa eta inguruko baserriak alituko dituzte. Ordu berean, Jalgi kafe-Antzokian Xumela korua eta Earra Bertso eskolako kideak hasiko dira errondan. Erketz EDT-ko lagunak ere herriko kaleak eta inguruko baserriak girotuko dituzte.

Hitzaldia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Osteguna 07, 18:00etan

PROSALUS elkarteak lagunak hitzaldia eskainiko dute.

Asteazkena 13, 17:00etan

PROSALUS elkarteak lagunak hitzaldia eskainiko dute.

Jaia

LASARTE-ORIA

Larunbata 9-Igandea 10

Inauteriak izango dira Lasarte-Orian. Larunbatean Munduko Kulturak izango dira nagusi. Herriko elkarte eta koa-driak dantzan ikusteko aukera izango da. Igandean, berriz, Euskal Inauterien txanda izango da.



Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 7, 21:30ean

Ostegun zinea atalean, "La pequeña Venecia" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 17, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Kiriku eta basapiztiak" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Euskaraz.

II. Urpeko Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 4, 19:30ean

"Hondarribia" eta "Ai Futaki" film laburrak eta "Thailandia" dokumentala ikusiko dira.

Astelehena 11, 19:30ean

"Cry for Love" eta "Mina Mari" film laburrak eta "Guadalupeko marrazo zuriak" dokumentala ikusiko dira.



Astelehena 18, 19:30ean

"Neskatala baten mezua" film laburrak eta "Ondinesia" dokumentala ikusiko dira. Danok Kide elkarteak Real Sociedad kirol elkarteke urpeko sailak antolatuta.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 06, 18:15ean

Lasarte Oriako Udal Musikako ikasle eta irakasleek inauterietako kontzertu bufoa eskainiko dute.



Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Hilabete osoa

PROSALUS elkartearen "Elikagaia izateko giza eskubidea" erakusketa ikusgai izango da.

Astelehena 04-Ostirala 14

Lasarte-Oriako Udalak irudi korporatibo berria aukeratzeko erakusketa jarri du Udalak. Herritarrek lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusi eta gustoko dituztenak bozkatu ahaliko dituzte.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Ostirala 01-Ostirala 15

PROSALUS elkartearen "Osasuna eskubidea dela" erakusketa ikusgai izango da.

Herritarren txokoa

Lasartearra elkarteak XXXVI. mus txapelketa

Lasartearra elkarteak bere bazkide eta lagunak jakin arazten die, XXXVI. Mus txapelketan parte hartzeko izena ematea ireki dela. Izena eman nahi dutenek elkartera hurbildu behar dira, otsailaren 20a baino lehen.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoatik jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza eraztuna, bi ordulari, lau betaurreko graduatu, patinete bat, neskatal baten poltsoa eta diruzorroa eta bost mugikor.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiak eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbildu daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Marrakiz eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakiz eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel

Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.



Korrika laguntzaile txartelak

Korrika 18-ari babesa emateko laguntzaile txartelak honako lekuetan daude salgai: Jalgi Kafe-antzokia, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Muntteri-AEK-n. 12 euro balio duen txartela erosiaz, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertzioan beharpenak eskuratuko dituzte herritarrek.

Korrika 18-aren arropa salgai

Korrika 18-aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzterian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte.

Sarean

EuskalAPPs komunitatea

EuskalAPPs Euskal aplikazioak aurkitzeko eta sortzeko komunitatea da eta www.euskalapps.net helbidean aurkitu dezakezue.

The Movie Virtual enpresak sortu du web orrialdea eta, Jaurritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesa du.

Duela bi aste twitter bidez (@euskalapps) eman zuten bere sorreraren berri eta laguntza eske hasi zen. Izan ere, atari honetan euskal aplikazioen erabilera bultzatzeko biltegi bateratua egin nahi dute.

Horretarako, euskaraz aplikazioak egiten ari den jendeari deia egin ahi diete eta web orrialdeko kontaktuan atalean haiekin harremanetan jartzeko aukera dagoela jakitera eman dute.

Dagoeneko aplikazio batzuk aurki daitezke Merkatu App atalean, hala nola, "Animaliak margotzen", "elkar libbuk" edo "Hitzekin jolastuz". Doaneko aplikazioak ere aurki daitezke eta noski bertatik deskargatu ahal dira.

Web gunean azaltzen denez, plataformak anitzeko sarrera izango du mugikorren aplikazioetara (IOS, Android, Windows Phone, Meego, BlackBerry...).

Honetaz gain, web orrialdean euskaraz aplikazio berriak garatzeko argibideak eskaintzen dira Sortu App atalean. Egileen esku jarrizten ditu erreminta, zein interfazeetarako sarbideak, areko aplikazioak programatzeko asmoz. Era berean, webgune berriak aukerak eskainiko ditu garapenean diharduten pertsonen arteko harremanak sendotzeko.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Imatxi Rico Psikoterapeuta

“Giza izaeraren B aldeari buruz idatzi nahi nuen”

■ “La niña sin pupilas. Cuentos para no mirar” liburu idatzi du ■ Arrakasta handia du “La niña sin pupilas” Facebook kontuak ■ www.sinpupilas.com web orrialdea ere martxan du

Imatxi Rico herritarrak “La niña sin pupilas” liburu argitaratu berri du. Ipuin urratzaileak dira eta giza izaeraz modu ironikoan hitz egiten dute. Lasarte-Oriako liburu dendetan eskuratu daiteke ipuin liburu berezi hau. Baina “La niña sin pupilas”-ek badu facebook orrialdea ere eta arrakasta handia du. Eta orain web orrialde bat ere jarri du martxan.

Nerea EIZAGIRRE

Imatxi Rico herritarrak pozik dago, “La niña sin pupilas. Cuentos para no mirar” liburu dendetan dago dagoeneko, “urtarrilaren 25ean banatu zen liburu dendetan. Baina web orrialdean ere eskuragarri dago”. Honetaz gain, “La niña sin pupilas”-en facebook kontua ireki zuen uztailean eta haren hausnarketak azaltzen dira bertan. Jarraitzaile ugari ditu.

Nola sortzen da “La niña sin pupilas”?

“La niña sin pupilas” fikzio urratzaileko pertsonaia da. Hau giza izaera zer den aztertzen osten jaiotzen da.

Nolabait, giza izaera nola marraztu izango litzateke. Oso zaila da, baina azkenean nik neskak bat marraztu nuen begi-ninirik gabe. Izan ere, niretzat jasan ezina izango litzatekeen zerbaitetan pentsatu nuen eta ni ezin naiz bizi ikusmenik gabe.

Eta hortik giza izaera bat sortu nuen arimaren begiekin guztia ikus-
t e n
d u e n a .
O s o
m i n d u a
d a g o
m u n -



Imatxi Rico psikoterapeuta da eta berak landutako gaiak azaldu nahi zituen.

duan gertatzen diren gauzak direla eta. Eta bihozmin horretatik hitz egiten du, begien ikuspegia izan gabe.

Idea hori nondik dator?

Nik giza izaerari buruz idatzi nahi nuen eta gizakiek dugun B alde horretaz. Giza izaera oso liluragarria da baina hutsune edo gabeziak bete dagoen beste zati bat ere badu.

Ni psikoterapeuta naiz, erizain bezala egin dut lan psikiatria arloan eta psikoterapia kontsulta bat du. Horrela nik telebistan ikusi edo tratatu ditudan kasuei buruz hitz egiteko gogoia nuen.

Ipuin liburu bat idaztea otu zitzaidan, ipuinek zer ikusi handia baitute errealitatearekin.

Eta “La niña sin pupilas” da narraztailea...

Bai horrela da, “La niña” ipuinak kontatu eta lotzen ditu. 25 ipuin dira eta gai ezberdinak dituzte.

Esan bezala, giza izaera bat da eta pertsonaia ezberdinen kargu dago. Hauek gaiztoak dira eta bata bestea baino maltzurragoa dira. Walt Disney-ek animaliak gizatiartzen dituen legez, “la niña”-k gizakia aberetzen ditu ipuinetan.

Ipuinek emozioekin ere zer ikusia dute, ezta?

Bai, fikzio urratzaile emozionala egin dut. Nola? Batetik hitzekin emozioen puntua ukitzen dut, baina bestetik marrazki bat dago.

Honetan ipuinaren zati harrigarria edo gogorra dago irudikatua. Beraz, kolpe bikoitza ematea da helburua.

Eta beti aipu bat dago azpian, ipuinaren kontrajarrera dena.

Hauek aipu suspertzaileak deitzen



“La niña sin pupilas” liburu herriko liburu dendetan dago.

I MATXI RICO

dira. Izan ere, ez dugu jendeak amore ematea nahi. Ahulgune bat ukitu eta gertatzen ari diren gauzak ikusteko balio izatea nahi dugu.

Nolako harrera izan du libururak?

Jendea gogoekin geratzen da, ipuin luzeagoak izan beharko liratekeela esan didate.

Irakurtzera ohituak ez dauden ere esan dute. Izan ere, egun batean ipuin bat edo bi irakurri ditzakezu eta hoiei buruz pentsatu. Baina jendeak, esan digunez, bi egunetan irakurtzen du.

Ipuinak dira baina hausnartzeko aukera ematen duten gaiak direla.

Liburuaz gain, “La niña”-k facebook eta twitter kontua ditu, ez?

Twitterra gutxi erabili dugu. Baina liburu argitara emateko facebook kontu bat ireki genuen.

Honetan ez dugu ipuinetan dagoena azaltzen. Beste materiala bat aurkezten dugu Facebook-ean. Egunerokotasunean gertatzen diren gauzak islatzen ditugu. Bizipenekin zer ikusia duten berriak daude, baina baita politika mailako berriekin ere.

Uztailean sortu zen “La niña sin pupilas” kontua eta geroztik, erreformak, jendearen atsekabea eta kexak, haserrea ondarea da eta egokieraren joko ematen dute.

Eta facebook kontuan pertsonaia ezberdinak aurkitu daitezke, ezta?

Bai horrela da. “La niña”-rekin batera, Zen maisua eta antzinako aitona daude eta oso ezagunak egin dira.

Hauek neskakarekin harremana dute eta honi erantzunak emateko balio digute.

Zen maisuak ez du kasurik egiten eta beti drogak alaitua dago. Esaldi bakarrean erantzuten du. Baina grazia egiten du zeren eta era ironikoan gaiak jorrazteko aukera ematen baitigu.

Umoreak ere garrantzitsua du, beraz?

Guztia umorearen ikuspegitik lantzen saiatzen gara. Liburuare ironikoa da guztiz. Eta facebook-eko marrazkiak ere horrela lantzen ditugu. Neskak haur oso ironikoa da.

“Egia esan behar baduzu, hoherena txiste batean kontatzea duzula diote, bestela jendeak hilko zaitu”. Hori da Billy Wilderren da. Jendeak berdin ulertuko du, baina irribarre bat sortuko duzu haien ezpainetan.

Egun jendea oso sentikor dago gai askorekin eta ez dugu gehiago atsekabetu nahi.

Orduan herriaren ahotsa dela esan daiteke?

Bai, horrela da. Eta horregatik, Mafaldaren antzekoa dela esan digute.

Itxura kontuan izanik, ez dauka zer ikusi handirik hau askoz gotikoagoa da eta Tim Burtonen pertsonaien antza du. Baina gaur egungo Mafalda dela esan daiteke.

Gure inguruan gertatzen ari den guztiari buruzko iritzia ematen du. Duela bi urte egiro ekoerera egin du eta “La niña”-ren kontzeptua orduan sortu zen.

Agian horregatik jarraitzaile ugari dituzue profileen...

Oraingoz, harrera ona izan dugu. Berri batzuk ditugu jendearen ahultasuna ukitu dutena eta asko elkarbanatu dena. Batean mila eta piko jarraitzaile izan genituen.

Eta ez dugu mezu iraingarri izan. Dirudenez neskak izateagatik jendeak errespetu handia diola. Eta harrigarria da zeren eta hausnarketa sakonak egiten baititu. Askok esan digute neska honek begi-ninirik ez baldin baditu ere, asko dakiela.

Ziur nago pertsona baten izenean egingo balitz ez lukeela erantzun hau jasoko. Baina neskak gizarteari buruz orokorrean hitz egiten duenez eta herritarren alde agertzen denez errespetatzen dute.

Web orrialdea ere baduzue, www.sinpupilas.com. Bertan “Sin pupilas” mugimenduari buruz hitz egiten da. Zer da mugimendu hori?

Jarraitzaile asko ditu eta hori mugimendu bat dela esan daiteke eta “La niña”-ren garapenetik sortzen da mugimendua.

Hau plataforma berezia da eta honetan giza-proiektuak eta aldaketa ideiak landuko dira.

Honetan giza-erantzunkizun korporatiboari buruz hitz egiten da eta proiektu ezberdinak landuko ditugu.

Baina osatzen joango da, hau atal berria delako.

Politikoki hainbeste zikinberia dago eta jendea bereari begira egin ditu gauzak eta jendeak horrelako plataformak daudela eta herritarren alde gauzak egiten direla jakitea ongi dator.